

IX. LEGEGINTZALDIA
2015-2019 LEGEALDIA
UXUE BARKOS BERRUEZOren
INBESTIDURA-HITZALDIA
(GEROA BAI)

INGURUMENA

Ingurumen alorrean Nafarroarentzako ingurumen estrategia integrala eta zeharkakoa landu, onartu eta ezarriko ditugu 2020ko jomugan, gizarte eragile eta hiritarren prozesu parte hartzaile baten bidez finkaturiko helburu, xede eta jarraipen adierazleekin. Datorren gobernuak Europar Batasunaren 20/20/20 konpromisoa bere egiten du (emisioen %20ko murrizketa; energia-eraginkortasun %20 gehiago eta energia berriztagarrietatik eratorritako %20a azken energian), berotegi-efektu gasen eta osasunarentzako kaltegarriak diren edozein gas eta partikula motaren murrizketari bereziki ekinez.

Ingurumen Sailak biodibertsitate alorrean ekimen zehatza burutuko du gure lurraldean bere galera ekiditeko. Ur alorrean ere eta Uraren Direktiba Markoarekin bat, komunitate araudiaren ondorengo garapen guztia kontutan hartuko dituen ekimena garatuz.

Hondakinen alorrean, hondakin frakzio ezberdinen tratamendu zehatzerako neurriak areagotuz ekingo zaio, bai eta gaikako bilketa sistemen eta tratamendu aurreratuagoen aldeko apustua eginez, tokiko errealitate bakoitzari hobe egokituz. Aurreko legegintzaldian Hondakin Plana (PIGRIM) baztertu ondoren gaur egungo egoera kontutan hartuz, egun martxan den hausnarketa prozesuari ekitearen aldeko apustua egiten dugu, sozietate zibila eta inplikaturiko eragileen arteko prozesu parte hartzaile egoki baten bidez plan berri bat definitzeko. Marko honetan eta aurreko Planaren errausketa behin baztertuta, errefusa frakzioarentzako irtenbiderik egokiena bilatzen saiatuko gara, Europa mailan eztabaidatzen ari diren proiektu normatibo aurreratuenekin bat eta ikuspuntu ekonomiko, sozial eta ingurumenarekikotik, frakzio honen tratamendurako teknika egokien aldeko apustua eginez.